



Astekaria



elgoi



Koldo Lizarralde Elgoibarko historiaren arrastoan



LARRANAGA autoeskola

Gazte txartelarekin %10eko BEHERAPENA izena ematean



Santa Ana II. 74 10 11 - ELGOIBAR

● Inazio Bereziartua

Klaseak IRAILAREN 12an hasiko dira

Irailaren 7tik aurrera klase egunak, ordutegia, irakasleak eta bestelako informazioa zehazteko LISTAK jarriko dira Plaza Txikiko eta Merkatu Plazako iragarki tauletan.

INSTRUMENTU KLASEEN ORDUTEGIA AUKERATZEKO eguna irailaren 12a, asteartea, izango da arratsaldeko 5etan.

HISTORIA, ESTETIKA eta FORMASEKO klase orduak jakiteko irailaren 12an, 7etan.

ARMONIAko ordutegia aukeratzeko, irailaren 12a, asteartea.
- 1. MAILA: 3,15etan
- 2. MAILA: 7,00etan



INFORMAZIO GEHIAGO: Plaza Agirre 3 - 1 (ordutegia: 5-7)



sake
KOPERATIBAK

INEKO

NEKAZARI KOOPERATIBA

San Frantzisko, 24 • ELGOIBAR • Tel. 74 07 62

ESKAINTZA BEREZIAK

Belardi berriak eta negubelarrak ereteko garai egokia

Negubelarra ereteko hazia **338 pta/kiloa**

Belardian uztaua eta belar txarrak galtzeko:

300 L/ura	3L/HaTropotone	1.770 pta/Litroa
	2L/HaPerseutox	2.410 pta/Litroa

Belar bolak entsilatzeke plastikoazko zakuak:

TXURIBELTZ (1,30m. x 2,95m.)koak **367 pta/bakoitza**

*Zatoz eta geuk
abolkatuko zaitugu!*

Zeure beharren arabera bai negurako, bi urterako, lau urterako edo sei urterako nahaste egokituak moldatu daitezke: DAKTILOA • LLOLLO INGELESA • LLOLLO ITALIANOA • WESTERWOLD NEGUBELARRA • TREVOL VIOLETA • TREVOL TXURIA (ladinoa eta Huia)

Itziarko industrialdea E-13 ITZIAR - DEBA Tel: 19 93 00 - 19 93 30 Faxa: 19 92 70

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi, Izaskun Elizburu.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:

Maitte Rementería.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martín,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maite Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Eduarne Korta, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Urte berri on!

Amaitu da. Amaitu da uda, amaitu dira San Bartolomeak, amaitu da Ertzantzaren hedapena. Hasi da futbol liga, NATOren interbentzioa Balkanetan, hasi dira frantsesen froga nuklearrak Mururoan, eta Emakumeen Pekineko Nazioarteko Konferentzia.

Baina beste zenbait gaik edo arazok ez dute hasiera edo amaierarik, komunikabideetan bestelako itxura eman nahi bada ere.

Irailaren 4an urte politiko berriari eman omen zaio hasiera, eta politikari gehienen ahotan "pazifikazioa" dabil hitzetik hortzera; hitz polit eta goxoak aideratuz hasi dute kurtso berria Gabon Zaharraren osteko Urte Berrian bageunde bezala.

Pazifikazio bide horri ekiteko irailaren lehenean Gasteizen Ertzantzaren hedapenari eman zitzaion amaiera, eta denak pozik, 150 biztanleko polizia bat duen herrialde honetan bake bideari ekiteko prest baikaude.

PSE bera ere "Euskadi" baketzeko asmotan agertu zaigu egunotan, denekin hitzegiteko prest, baina batez ere alderdi "demokratiko"deiturikoekin, PSOEK GAL aferan duen erantzukizunak "demokratiko" hitzarekin

inkompatibilitaterik ez balu bezala.


Nahi eta nahi ez, "pazifikazio" ekin berri honetan denok dugu Irlanda gogoan. Orain urtebete hasitako suetenak badirau ere, itxaropena agortua da jadanik. Bestalde, hemendik begiratuta hango bake prozesuari buruzko iritziek goitik beherako aldaketa izan dutela ikus daiteke: Irlandakoak ez omen zuen balio Euskal Herrirako, Ipar Irlandak bazuen non integratu eta guk, berriz, ez, haiek Estatu Batuen laguntza zuten eta gu bakarrik gaude munduan...

Urtebetetera, aldiz, tortilari buelta eman eta hangoak eredu izan behar duela baino ez da entzuten: IRAk egin duen bezala ETAk ere armak utzi beharko lituzkeela, borondate ona erakutsi... Baina suetenaren aurretik iparrirlandar eta britainiarren artean izandako negoziaketa, elkarrizketa edo hitzarmenak urte zaharrak eraman omen ditu bere haize zurrunbilatsuaz, eta jadanik inork ez ditu gogoratzen ez han eta ez hemen.

Eta halaxe ekiten diogu urte berriari, hitz goxo eta asmo onez, aurreko bekatu eta zoritxarrak baztertu nahian, eta urte berriari desio ditugunak eskatuz, baina beharrezkoak diren pausuak eman gabe.

Lorea Gorostiaga

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

Legalak al dira etxez-etxe butano errebisioak egiten dabilzan gas instalatzaile enpresak?

Udaltzaingoan adierazi digutenez, enpresa legala da baina beraiek etxean egiten duten lana Repsolek ez du ontzat ematen bi arrazoiengatik: batetik, ez dute egindako konponketen fakturarik ematen, prezioa beraien iritzira jarritakoa delarik. Eta bigarrenik, legeak dio errebisioa egin eta gero zertifikatu edo agiri bat eman behar dutela eta enpresa hauek ez dute inolako agiririk ematen.

Hortaz, pausu hauek jarraitzea gomendatu digute Udaltzaingotik:

- Atera deitzen badute, identifikatu daitezen eskatu.
- Identifikaziorik izango ez balute, ez utzi butano gasaren goma aldatzen. Norberak kontrola dezake noiz kadukatzen duen gomak, guztietan agertzen baita baliogabetze data.
- Ezer aldatu aurretik errebisio-zertifikaturik ematen duten galdetu. Emango ez balute, ez utzi aldaketarik egiten.
- Butanoaren erregulatzaileak (txapelak) ez du baliogabetze datarik.

ESKUTITZAK

San Bartolome jaiak

Aurtengo San Bartolomeak eragindako neke eta ajeak atzera laga ditugunean, gure jai maiteei buruz gogoeta egin nahiko nuke. Orokorrean uste dut denok eduki dugula gustuko zerbait topatzeko eta gozatzeko aukera, eta gehienok ondo pasatu dugula, bakoitzak jaiak ulertzeko duen eran.

Baina hala ere, entzun eta ikusi dira denon gustuko izan ez diren zenbait gertakizun, eta hau da gutun honen xedea.

Jakina da aspalditxotik Elgoibarren banaketa nabaria dagoela: gazte jendea Madala-San Frantzisko inguruan mugitzen da eta jende nagusiak nahiago izaten du Goiko Plaza ingurura hurbiltzea. Alde batetik oso ongi

iruditu zait Madalako parkean kontzertu eta dantzaldiak ugaritzea, bai Udaletxearen partetik eta bai zenbait talde herrikoiren aldetik ere, oztopoak oztopo.

Baina hau Goiko Plaza, hutsik, ezer gabe lagatzearen truke izan da, San Bartolome gauetz eta Txiki gauetz, alegia. Honek zeresan asko sortu du jende askoren aldetik, eta uste dut hurrengo San Bartolomeetarako irtenbide txukun bat bilatu behar dela, jaiak herritar guztiontzat eta gustu guztientzat egin behar baitira. Irtenbidea denon artean erabaki behar dugu, eta ez Udaletxeak bakarrik, beste inor kontutan hartu gabe. Ea hurrengoan! Gora San Bartolome Jaiak 1996!

Antton Iriondo



TXALOAK

San Bartolome jaietako antolatzaile batek deitu digu Elgoibarko haur eta gaztetxo guztiak txalotzeko. Bere esanetan eurak dira partehartze handiena erakusten dutenak eta benetan polita izan omen zen Haurren Eguna. Gustua ematen omen du haurrentzat gauzak antolatzeak.



KEXAK

San Lazaro egoitzako monjaburuak deitu digu Madalan jaietan izan diren musika emanaldietan megafonia altuegi egon dela salatzen. Datorren urtean bajuxeago ipintzeko eskaria luzatu nahi du.

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





Aste honetako argazkia San Antolineko tabernakoek utzi digute. Bertan azaltzen direnek, 1945. urtean, San Antolineko ermita erosi zuten. Garai batean ospe handikoak izaten omen ziren ermitaren inguruan ospa-tzen ziren jaiak, irailaren 2an hasita. Azken meza 1972an izan zen eta 1973 urte aldera bota zuten ermita, autopista eraiki behar baitzuten.

Argazkian agertzen direnak goiko ilaratik hasita, ezkerretik eskuinera: **Agustino Barrenetxea** (†), **Jose Eizagirre** (†), **Juan Bautista Galarraga** (†), **Francis-**

co Oria (†), **Santiago Agirregomezkorta**, **Nicolas San Martin** (†), **Tomas Etxabe** (†) eta **Pedro Etxabe**.

Bigarren ilaran, ezkerretik eskuinera: **Munaundi** (†), **Jose Maria Mujika** (†), **Manuel Juaristi** (†), **Sebastian Arrieta** (†), **Marcos Arregi**, **Victor Usatorre** (†) eta **Angel Arozena**.

Beheko ilaran, ezkerretik hasita: **Jose Juana Etxabe** (†), **Jose Txurruka** (†), **Migel Juaristi** (†), **Juan Jose Bergaretxe** (†), **Tomas Ansola** (†), **Nicolas Arrieta** (†), **Esteban Etxaniz** (†), **Teodoro Barrenetxea** (†) eta besoetan semea, **Luis Barrenetxea** eta **Elias Elorza** (†), besoetan bere semea, **Pedro M. Goi-koetxea**.

KEMEN Belardenda
MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA
San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

Baserriko haragietan berezia

Harategi Urdaitegia
San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

TAXIAK
JOSE LUIS BOLLAR
118. alean agertutako telefonoa gaizki zegoen.
☎ (908) 57 04 65 da

Joanak joan



Mauxitxa txarangak markatu zuen joan den astelehenean oporren amaiera. Eta, nola ez, lan hasiera. Eguraldia- ren hotzak bertan ditugu eta gaua bera ere, hasia da lehenago geureganatzen. Hemendik aurrera, abuz- tuan zehar pasatako guz- tiak oroimenean baino ez dira geratuko. Eta noizean behin, malenkoniak jota edo, album-a hartu eta argazkiak begiratu, bete- betean gogoratuko ditugu. Akaso izan ziren baino hobeak zirela sinestuz. Guk San Bartolome jaieta-

ko argazkiak bildu eta eskaini nahi izan dizkizue- gu, iraganari iruzur egin

eta orainaldira ekarriz. Une batez bada ere.

Lehen egunetako

Eskerrikasko gune askatutik

Aurten ere jaietan Udalak gazteoi eskaini digun programa eskasaren aurrean, Txoznen Batzordeak antolatutako programa alternatiboek ez dute alkatea- ren onarpenik ez azalpenik izan. Halere, herritarroi esker ekintza gehienak burutzea lortu ahal izan dugu. Jendearen erantzuna inoiz baino hobea izan da, Madal- lan benetako Gune Askatu bat sortuz. Bertan parte hartu dugun kolektiboek urtean zehar ere lanean dihardugula jakinarazi nahi dizuegu; bakoitzak bere helburuak dituela baina denok borrokan. Eskerrikasko gerturatu eta parte hartu duzuen guztioi.

Txoznen Batzordea

ajeak jota eta kanpotik eto- rritako makina bat jendez gainezka igaro zen astebu- kaera. Aspaldiko urteetan izan den Gin-Kanaren orde z aurten, berriz ere, goitibeherak izan ziren igandean, Gazteen eta Jubilatuen egunean. Parte- hartzaile gutxi izan ziren, hiru bakarrik, baina ikusle- ek benetan disfrutatu zuten haiek errebueltak hartzera- koan hormaren kontra jo- tzen zuten bakoitzean. Eta gauean Madalara hurbildu izan guztiek saio bikaina izan zuten entzungai *TTa- kun, Ñaco Goñi's Blues*



Band eta Deabruak Teilatuetan taldeen eskutik. Jubilatuek ohiko bazkaria eta dantzaldia izan zuten Gelatxorekin eta arratsalde partera, Solteko Dantza Txapelketa izan zen Plaza Haundian. Argazkian Bergarako bikote irabazlea ikus daiteke. Umeak izan ziren nagusi azken egunean, astelehenean. Hauek behintzat ezin kexatu, makina bat gauza egon baitziren beraiei eskainiak. Bazkari herrikoia, marrazki lehiaketa, izugarritzko parkea, txaranga, globo askaketa eta *Eganekin*

Mila esker denoi

Lehenbizi, jai oso lasaiak eta alaiak izan direla adierazi nahi nuke. Gurutze Gorriak eta Udaltzaingok adierazi digutenez ez dira eman gertakizun aipagarririk. Denon portaera bikaina zoriondu beharko litzaieke. Giroa bakoitzak barruan darama baina orokorrean jendeak oso ondo pasa duela esango nuke. Hori izan da gure asmoa. Jendearen partehartzea ona izan da sokamuturrari, Baserritarren egunean, Mauxitxaren kalejiran Txiki egunean eta Umeen egunean... Katekisten lana azpimarratu behar da urtero gero eta ume gehiago elkartzea lortzen dutelarik.

Halere, denok dakigu jaiak hobetu daitezkeela eta ziur egon zaitezketek saiatuko garela. Bukatzeko, eskerak eman nahi nizkieke Udaletxearekin eta Udaletxearentzat lan egin duten guztiei. Mila esker denoi.

Ana Santolaya (Kultur Batzordeko Lehendakaria)

dantzaldia. Plaza Handian, Madalan, tarteko kaleetan, tabernetan edo txoznetan, toki guztietan izan da jai giroa. Asetu ez zenak, joan den larunbatean, hilak 2, izan zuen aukera juerga errepikatzen. Herriko tabernariak hainbat ekintza antolatu zituzten, hala nola, haurrentzat “altxor bila” eta hainbat kontzertu Plaza Handian eta Madalan.

Datorrena datorrela, 320 egun barru berriz ere izango gara jaiei hasiera emango dion txupinazoa noiz entzungo zain.

Ba al daukazu eskolan hasteko gogorik?



MELANY ARRIZABALAGA
6 urte

Bai, oporretan baino hobeto pasatzen dot eskolan lagunekin jolastan. Aurten matematikak eta jolas asko ikasiko ditut.



ANDER GERENABARRENA
8 urte

Batetik bai, lagunak ikusteko baina bestetik ez, lan egin bihar da eta. Aurten zatiketak eta biderketak ikasi bihar ditxugu, aber zelakuak dian!



JONATHAN GALA
7 urte

Bai, oporretan aspertu egiten naiz. Eskolan gauzak ikasiko ditut eta lagunekin jolastu. Gehien gustatzen zaidana matematikak dira.



SHEILA BLANCO
6 urte

Nik nahi det joan eskolara ze bestela ez dut ikastan eta nik irakurtzen ikasi nahi dot. Gainera oporretan aspertu itxen naiz piskat.




AINHOA ALONSO
10 urte

Ez, gustura nabil oporretan. Abuztuan Port-Aventuran egon naiz, oso ondo. Lagunak ikusteko gogua badakat baina ikasteko ez.



BENAT ARRIZABALAGA
3 urte

Bai, lagunak eitxeko, jolasteko, marrazkixak eitxeko... Oporretan ez naiz aspertzen baina eskolan ere ez, eta andereñuak onak dia.



LURRA
J. R. Agirre
"MARRON" en eskutik
ALASKA
Mckinley (6.194) m)
Hilak 14, osteguna
8etan Kultur Etxean



EUSKARA IKASI

Matrikula zabalik

Plaza txikia



San Franzisko 8 ☎ 74 02 80



ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

Homosexualen topaleku bihurtu zen Aubixa asteburuan

Euskal Herriko Gay Askapen Mugimenduak, EHGAMek antolatuta, 100etik gora emakume eta gizonezko asteburua igarotzen izan ziren Aubixan. Gayakanpada izenpean, ohiko gay girotik kanpo elkar ezagutzea, heziketa sexuala lantzea, bideoforumak eta eztabaidak eta inguruko mendietara irteerak egitea izan da topaketa honekin EHGAMek lortu nahi izan duena. Kanpinetan eta Aubixako

aterpetxean asteburu eder bat pasa zuten.

Aisialdiarekin batera ezin gay mugimenduaren errebindikazioak ahaztu. EHGAMeko ordezkarien esanetan, "berdintasunaren bidetik aurrerapausoak eman badira ere, lege aldetik oztopo handiak daude oraindik ere". Horrezaz gain, "gizabanako modura kontsideratuak izatea eta ez bikote bezala, horixe da guk eskatzen duguna".



Mertxe Sueskunen eta Gemma Monrealen lanak, Elgoibartik kanpo

Elgoibarren bizi den 48 urteko Mertxe Sueskun eskultoreak Poloniako Lodz hirian erakusketa egingo du ostiral honetatik aurrera. Zortzi egunez egongo da Mertxe Polonian, "denbora gehiago egon nahiko nukeen arren ingelesa eta poloniarra ez ezagutzea oztopo handia da niretzat". Forma eklektikoen munduan murgilduta, arkitekturaren erreferentzia erabiltzen zueneko garaia gaundituta, "era guztietako materialak erabiltzen ditut orain, dametako fitxak, kaxak,..." Honez gain, burdina,

egurra eta sisal izeneko materiala ere erabil-tzen ditu.

Bestetik, Gemma Monreal margolari elgoibartarrak ere izan du bere lanak Elgoibartik kanpo erakusteko aukera. Oraingoan Jaeneko Cazorla herrian erakutsi ditu Gemmak abuztuaren 22tik irailaren 2ra bitartean hainbat oleo. Hogeita hamar lan izan dira guztira Cazorlako Kultur Etxean ikusgai egon direnak, tartean Santander, Gipuzkoa, Cadiz, Marruecos, Santo Tomé, Murcia eta Cazorlako inguruetako irudiak.

Diapositiba emanaldia

Klaseak hastearekin bat, bestelako ekintzei ere eman die hasiera AEK euskaltegiak. Hil honen 14an, osteguna, J. R. Agirre "Marron" mendizale ataundarrak munduko zazpi lurraldetako gailurrak egin ondoren, Alaskan izandako bizipenen berri emango du diapositiben bidez. Alaskako McKinley (6.194m) tontorren igoera eta eskimalen bizimodua azalduko ditu egileak irudietan. Emanaldia 20,00etan Kultur Etxean izango da.

Alderdi Egunera joateko autobusak

Hil honen 17an EAJ-PNVk Alderdi Eguna ospatuko du. Salburuako zelaian izango den ekitaldira joateko Elgoibarko EAJk autobusak antolatu ditu. Asteburuko akanpadarako ere autobusak egongo dira. Plazak mugatuak izango direnez lehen bait lehen izena ematea komeni da.

Istripu eta gertakariak

Abuztuaren 24an eguerdiko 12ak aldera, hiru autok su hartu zuten Usetxe kalean. Udaltzaingoaren esanetan, auto bati ihes egindako gasolinak su hartu zuen hura martxan jartzerakoan. Eroritako gasolina beste bi autoren azpira pasa zen, bi hauek ere su hartu zutelarik. Abuztuaren 26an Urruzunoko tren pasabidean atzeko gurpilak trabatuta geratu zitzaizkion kamioi bat harrapatu zuen trenak. Zorionez ez zen inor zauritu. Gertakari hauez aparte, bi istripu izan ziren eta bakoitzean zauriak izan zituen pertsona batek. Abuztuaren 29an San Pedroitik jais-ten zegoen txirrindulari bat zauritu zen eta hil honen 2an, txarangan zebilen sei urteko neskato bat harrapatu zuen auto batek Pedro Muguruza etorbidean. Gidaria, R.N.F. inzialak dituen, atxilotu egin zuten gidabaimenik ez zuelako. San Bartolome jaietan beste pertsona bat atxilotu zuen Udaltzaingoak trafikoko seinale bat apurtu eta ibaira botatze-agatik.

Iñaki Guede:

“Bitxiak konpontzea lan garbia eta atsegina da”

Artisautza lana, kompetenziagatik edo maisu zaharrak desagertuz doazelako, gero eta gaitzago gertatzen da ikasteko. Iñaki Guede, industrian lan egin ondoren,

bitxigintzaren sekretuak ezagutu nahi izan ditu, betidanik gizakiak bere distirarekin erakarri izan dituen zilar, urre eta harribitxiekin.

- Zeintzuk izan ziren bitxigintzan hasteko arrazoiak?

- Alde batetik, ez nengoen gustura lanean. Tailerretan aritzen nintzen ajustatzaile bezala, baina kontratuen ezegonkortasuna zela eta, beste zer-bait egitea erabaki nuen. Bestalde, nire anaia Josu bitxigintzan ari zen lanean, 14 urtetik soldaduska egin bitartean Bilbon aprendiz modura egoteko aukera izan baitzuen. Ofizioa gustuko nuen nik ere, baina anaiak ez zeukan neu aprendiz hartzeko behar adina denbora. Basauriko Lanbide Heziketako lokal batzuetan Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzen bidez antolatutako bitxigintza ikastaro batzuen berri izan nuenean bertan hasi nintzen. Oinarrizkoa ikasi nuen eta udan, lehenengo kurtsua egin ondoren, Josu-ekin hasi nintzen lanean, era berean gehiago ikasteko aukera neukalarik.

- Zein motako lana egiten duzue?

- Beno, gehienbat Elgoibarko pare bat bitxidendak bidaltzen dizkiguten bitxiak konpontzen ditugu: kateen mailak, eraztunak, harribitxi zartatuak... Beste batzuetan, jendeak erabiltzen ez dituen belarritako edo



“Kompetentzia handia dago. Jende asko eta lan gutxi”

antzekoak hartu eta, urtu ondoren, bitxi berriak ere egiten ditugu. Asko gustatzen zaidan lana da, xehea eta garbia, lantegi bateko ajustatzailearen antzekoa.

- Enkargu berezirik izaten duzue?

- Batzuetan ezagunak etortzen zaizkigu, zerbait desberdina nahi dutelako edo konponketa bitxiren bat egiteko besterik ez. Hala ere, gauza berriak sortzeak nahiko lan ematen du, eta bestela ere nahiko lan ematen digu

bitxidendetako enkarguak betetzeak... Behin disekatzten diren animaliei jartzen zaizkien begiekin eraztunak egitea nahi zuten bi etorri zitzaizkigun... Oso berezia benetan.

- Kompetentzia arazorik baduzu?

- Bai, jende gehiegi gaude dagoen lan gutxirako. Honetan ari direnek ez dute nahi izaten aprendiz hartzea, eta bezeria nahiko finkaturik dago. Normalki Bilbon konpontzen dira bitxi gehienak,

eskualde bakoitzaren kokapenak ere zerikusia izan arren.

- Ba al daukazu lantzea gustuko duzun metal bereziren bat?

- Zilarra eta 18 kilateko urrea dira gustuen lantzen ditudanak eta emaitza onena ematen dutenak. 24 kilateko urrea purua izaten da, baina modelatzea kostatzen da eta bitxia, erabiltzerako orduan, hauskorra gertatzen da. Hau dela eta, kuprea eta zilarrarekin aleatzen da, horrela 18 kilateko urrea lortzen delarik. Platinoa, ostera, gutxi erabiltzen da, oso garestia eta gogorra izateaz gain.

- Nola ikusten duzu etorkizuna?

- Lehenengo ikasketak burutzeko gelditzen zaidan urtea amaitzea nahiko nuke Donostian, hara pasatu baitute eskola. Gerora, Elgoibarren bertan denda bat irekitzea gustatuko litzaiguke anaiari eta biori, lokal egoki bat aurkitu, ahalik eta inguruko bitxidenda gehien bezerotzat lortzea eta Maltzagan daukagun tailerra dendara pasatzea. Hala ere, diru asko behar da horretarako baina, urtebete edo bi urte barru behar bada... ikusiko dugu.

MIKEL CORNEJO



Urteko lehenengo feria handia

Txiki Eguneko ajeak jota iritsi zen larunbata, Baserritarren Eguna. Aspaldiko urteetan bezalaxe, ekintzaz betetako eguna izan zen, baserritarrek bete-betean gozatzekoa modukoa. Goizean goiz hasi eta gauera arte izan zen zer ikusi eta non ibilia, batzuek goizeko ordu txikiak arte luzatu zutelarik eguna. Trikitilariak, bertsolariak, lehiaketak, dantzaldia.... Bat edo batek beharbada zerbait faltan botako zuen, gustu guztiak ezin asetu, baina gehiegi kejaritzeko modukorik ez behintzat. Egun lainotsua izan zen eta euri zaparradarik ere bota

zuen. Hori dela eta, beste urteetan baino jende gutxiago ikusi zen kaleetan. Halere, ganadua Plaza Txikitik Plaza Handira eramantean, dexente jende elkartu zen ibilbidean zehar. Azpiko taulan lehiaketa ezberdinetan nagusitu direnen izenabizenak irakur daitezke. Elgoibartarrak Blonda eta Pirenaika arrazatan nagusitu ziren. Datozen orrialdetan BARRENEko kamarak jasotako hainbat inpresio, Gipuzkoako Aizkolari Txapelketaren ingurukoak eta ganadu sari-
ketako irabazle batekin izandako solasaldia izango dira irakurgai.

SAGARDO SARIKETA

- 1.- Rezola (Astigarraga)124 puntu
- 2.- Astiazaran (Donostia)124 puntu
- 3.- Buenabentura (Astigarraga)123 puntu

GANADU SARIKETA

Blonda arraza

1,5-2,5 urte artekoak (umerik egin gabekoak)

- 1.- Domingo Arriola (Akei baserria, Elgoibar)
- 2.- M.Aranzazu Jaka (Agirrebeña, Bergara)

2-4,5 urte artekoak (erditutakoak)

- 1.- Arantza Jaka (Bergara)
- 2.- Domingo Arriola (Elgoibar)

4,5 urtetik gora

- 1.- Luis Osa (Itziar)

Pirenaika arraza

1,5-2,5 urte artekoak

- 1.- Irumendi elkarte (Bergara)
- 2.- Ramon Larrañaga (Aldapa, Elgoibar)

2-2,4 urte artekoak

- 1.- Ramon Larrañaga (Elgoibar)
- 2.- Irumendi elkarte (Bergara)

4,5 urtetik gora

- 1.- Irumendi elkarte (Bergara)

Frisoi arraza

1,5-2,5 urte

- 1.- Jose Maria Ostolaza (Itziar)

2-3 urte artekoak

- 1.- Santiago Arakistain (Itziar)

3-5 urte artekoak

- 1.- Santiago Arakistain (Itziar)

5 urtetik gora

- 1.- Santiago Arakistain (Itziar)

SAN BARTOLOME FERIA SAN BARTO



Trikitilariak

Trikitilari eskolako en esku geratu zen Baserritarren eguneko diana. Txintxo-txintxo goizeko 9,30etatik aurrera, egun osoan zehar izan ziren entzungai trikitiaren eta panderoaren doinuak. Ohi denez, baserritarrez jantzita, jaiei kolore berezia jarri zieten neska-mutil gazteek. Trikitilariak ezezik, bertsolariak ere izan ziren Plaza Handian, Ziarra eta Meabe elgoibartarrak.

Sagardo dastaketa

Joan zen igandean ospatu zen Donostian Sagardo Eguna. Elgoibartarrok, aurrea hartzen diegu hiriburukoei. Izan ere, San Bartolome jaietan bertan izaten baitugu aukera bazter guztietatik etorritako sagardo egileen edari goxoa dastatzeko. Goizeko 10etan hasita jendea Plaza Handira hurreratu zen



txorixo pintxo bat jan eta sagardoz eztarria busti asmoz.

Ganadu sariketa


Kalitate handiko ganadua aurkeztu zen; epaileentzat lan errazik ez zen izan. Saridunen artean bi elgoibartar, Ramon Larrañaga Aldapa baserrikoa eta Domingo Arriola Akei baserrikoa. Marroi edo gorrixkak, zuri-beltzak... kolore guztietako ganadua ikusteko aukera izan zen eta haien planta ederrak komentario bat baino

gehiago sortu zuen baserritarren artean. Ez da, ez, makala gure belardietan hazten den ganaduaren itxura!

Dendak

Larunbateroko ferian bezala, San Bartolome jaietan ere ezin falta denda berezirik. Betikoak ezezik, bestelakorik ere izan zen. Argazkian ikusten duguna ganaduarentzako elementu koloretsuz beteta dago. Egundatez, Plaza Txikia eta ingurua benetan bitxia ikusi zen. Baserritarren eguneko dendaz eta trikiti soinu beteta batetik eta barrakaz eta hauetako "bakalao" musikaz bestetik.





Mandiola S.L. Egurrak
Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42

UDA

ELGOIB

LOME FERIA SAN BARTOLOME FERIA**Olasagasti nagusitu zen Gipuzkoako Aizkolari Txapelketan**

Azken urteotan herri-kirolen erakusketa izaten zen ikusgai Baserritarren Egunean Kalamua elkarteak antolatuta. Plaza Handian elkartzen ziren zaletu guztiak eta erdi-erdian, aizkolariak, trontzalariak eta harrijasotzaileek beraien abileziak erakusten zituzten. Aurten, aldiz, Gipuzkoako Aizkolarien Lehiaketa izan da.



Bost aizkolarik beharrean, lauk baino ez zuten txapelketan parte hartu

Foruen Enparantza toki benetan aproposa da edozein ekintza burutzeko. Aurten, Gipuzkoako Aizkolarien Txapelketa burutu da eta hasiera batean Plaza Handian izan behar bazuen ere, euria egingo zuen beldurrez, Polikiroldegian izan zen lehiaketa. Jendea erruz bildu zuten aizkolariak eta eskaini zuten saioa ikusgarria izan zen.

Baina, beste toki askotan izaten diren bezala, lehiaketa honetan ere izan zen istilurik. Dirudienez, antolatzerakoan, Aizkolari Federazioa harremanetan jarri zen enbor banatzailearekin guztira Elgoibarrera zenbat enbor ekarri behar zituen zehazteko.

Baina gaizki ulertu bat egon zen eta 10 enbor beharrean, sei bakarrik ekarri zituzten. Antza denez, federazioan ez dago zehaztuta txapelketan zenbat enbor erabili behar diren

baina orain bi urte izan zen lehiaketa 10 enbor erabili zirenez, kopuru hori hartu zen erreferentzi puntutzat. Era batera edo bestera, hasieran bost aizkolariaren artean izan behar zen lehia baina enborren auzia zela eta Igeldotik etorritako Etxebestek parte ez hartzea erabaki zuen. Arzoak arazo, lehiaketa aurrera joan zen eta lau aizkolari aritu ziren sei enbor nork denbora gutxiagoan moztu. Garailea Olasagasti izan zen, 17'46".ko denbora egin zuelarik.

SAILKAPENA

- 1.- Olasagasti17'46"
- 2.- Peñagarikano18'28"
- 3.- Erasun20'38"
- 4.- Elorriaga21'50"

okindegia eta gozotegia

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR

Akantzazu edergintza

I SOLARIUMA (Irailean eta urrian
10 sesio 6.000 pta.tan)
I Depilazioak hotz eta beroan
I Gorputz tratamenduak
I Masaia terapeutikoak eta drenaje linfatikoak
I Aurpegirako azido glycolicoz tratamenduak

-Dermatitis -Akne
-Zimurrak -Mantxa ilunak

San Inazio, 4. ☎ 74 27 25 ELGOIBAR

Ramon Larrañaga:

Urruzuno bailaran kokatzen den Aldapa baserrikoa dugu Ramon Larrañaga. Ganadutik bizi da bera eta aspaldian sari bat baino gehiago irabazi du hauei esker. Horiatariko pare bat Elgoibarren bertan, San Bartolome jaietako ferian. Pirenaika arrazari dagokion bi sari eskuratu ditu Ramonek, 1.a eta bigarrena.

- **Lehenengo sari bat irabazi zenuen.** - Bai. Behi gaztien kategorixan, pirenaika arrazan. 30.000 pta. eta kopia eman zien eta urte t'erdira ailegatzen ez dan bigaia batekin bigarrena irabazi naban, 25.000 pezeta.

Beste hirugarren bat ere eraman naban eta harengatik 22.000 pta. eman zien dieta bezela.

- **Dietak ere ematen al dituzte ba?** - Bai, antolatzailak juten dia baserrira eta eurek esateizue zein ga-



nadu dan aurkezteko modukua. Izan laike bakarria, bi edo bat ere ez. Hori bai, eramaten dozun buru ba-koitzeko dietia ematen dabe.

- **Lehen saria jaso duenak gehiagotan ere irabazi izan du, ez?** - Bai, lau sari irabazi ditxu. Iaz ere San Bartolme jaietan lehenengua atera zaban eta aurten Elgetan beste horrenbeste. Lehenago, bigaia zanian ere tokau jakon lehenengua izatia.

- **Zer du ba behi horrek?** - Ederra da oso, konjuntuan oso konpletua. Politxa benetan.

- **Izenik ba al dauka?** - Bai, Motza. Jaixo zanian politxa zan baina motz xamarr, txikitxua eta horregatik ipini nion izen hori. Gurian danak dake izenen bat, Argi, Gorri, Makurra, Txata... Segun eta zelakuak dian, hortik ateratzen diuet izena.

- **Danak etxean hazitakoak al dituzue?** - Bai, neuk erositxakua idiskua bakarrik dakat. Oin dala 11 urte edo sartu ginan pirenaika arrazan Akei baserritik 7 hilabeteko bigaia bat ekarritxa. Orduan gutxi zauan arraza hori eta pagatu egin bihar zan baina neuk horretxeri botata nion begixa eta...

- **Zenbat daukazu orain?** - 10 behi, idisko bat

eta 11 txahal.

- **Bikirik ere izan du behi batek.**

- Bai, oin dala hilebete batzuk. Inseminaziuakin sartu ezkerro hazixa normala izaten da bikixak eukitzia baina gurian zuzenian eitzen dou, idiskua horretarako dakagu eta. Horregatik ez da hain normala izaten bikixak eixia. Ondo daude bixak. Peligrosua izaten da ze, bata ondo etorritxa ere bestia atzeraka etortzen da gehixenetan. Neri esanda zien bikixak zatozela eta propio zaindu naban ama. Belar zikua eman nion jateko, pentsua eta lastua, larrekua baino arinaua da eta. Kanpora ateratzen nabanian bozala ipintzen nion, belarrik ez jateko.

- **Ganadua mimatu egin behar al da?** - Arraza noblia da baina koloria bezelakua daka odola ere, bizixa. Harek jotzia alperrik da, zuzen tratatu bihar dia baina sakarra izan be. Kanpora atera bihar dia, libre laga bihar jakue, nahiz eta egunian behin eta egualdi txarra dauanian etxera ekarri.

- **Hurrengo sariketaren batera aurkezteko asmorik?** - Iaz Eibarren izan nitzan, San Andres ferixan. Aurten ere deitxuko dien esperantzan nago. Ondo etortzen dia ferixak eta lehiaketak, laguntzia izaten da.

Uztailaren 23an, 90 urte zituela, hil zen **BENIGNA ZABALETA ELORZA**ren sendiak bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Jose Angel Zabala

Txarkuteroa



- **Noiz zabaldu zenuen denda?**
- ▶ Setienbriaren 14an.
- **Gehien saltzen den produktua?**
- ▶ Jamon de York.
- **Txorizoa ala urdai-azpikoa?**
- ▶ Bixetatik piska bat.
- **Zein txorizo klase aukeratuko zenuke?**
- ▶ Errioxako txorizoa.
- **Haragia ala arraina?**
- ▶ Bixak gustatzen jataz.
- **Kolore bat?** ▶ Urdina.
- **Negozio ona al da?** ▶ Momentu honetan ez.
- **Jamon York ala Serranoa?** ▶ Serranoa.
- **Otarteko asko jaten dituzu?** ▶ Ez.
- **Oporrik bai?** ▶ Bai, astetxo bat.
- **Noiz?** ▶ Abuztuan.
- **Eta nora?** ▶ Errioxara.
- **Egon al zara San Ferminetan?** ▶ Aurten ez.
- **Eguna ala gaua?** ▶ Gaua.
- **Denda merkatu plazan edukitzearen abantailak?**
- ▶ Inpuestu gutxiago ordaindu behar dituzula.
- **Musika klasikoa ala bakalaoa?** ▶ Klasikoa.
- **Urtarorik gustukoena?** ▶ Udaberria.
- **Mortadela ala txoepa?** ▶ Txoepa.
- **Zure bizitzako momenturik garrantzitsuena?**
- ▶ Ezkondu nintzen eguna.
- **Musika instrumenturik gogokoena?** ▶ Kitarra.
- **Orain bokadilo bat jan beharko bazenu, zer jango zenuke?**
- ▶ Jabugo urdai-azpiko bokadiloa, noski.

KOLDO GALDONA


URRUN DAGOEN ADISKIDEARI

DOINUA:


Sujet eder bat

Nahiago niake nere bertsoak
banitzakek kantu bihur.
Hire aditzera irits litezen
ozen, gartsu eta segur.
Ondikoz dituk handi-gogoak,
maiz gelditzen horren labur.
Guttiagorekin konforme behar...
Hurrenarte, Edu, agur!

Uste izan gabe ohi duk etorri
bizitzan hainbat ziztada.
Agian horrela esplikutzen duk,
hire joatea Utahra.
Keinu soil batez laburbildurik
nahiko niake akaba...
Jaso ezak hire lagun den honen
arimazko besarkada.



JON BARANDIARAN



*Eskulanean
saiatzzen gara
Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak*

Barandiaran 34-35 Tel: 74 03 45

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behe
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa



C. D. ELGOIBAR

Igoeraren bila

Liga hasiera ezin hobea izan dute elgoibartarrek. Hiru puntuko errenta lortu zuen joan den igandean C.D. Elgoibar Elkarteko Haundiak Gasteizko Alavés taldearen aurka. Datozen partiduetan beste horrenbeste egiten badute, aurten lor dezakete hainbeste amestutako goiera. Ea egia den!

Hogeita bat jokalarik osatzen dute C. D. Elgoibarko plantila. Bost kanpotik ekarri dituzte: Iban Larrañaga Ermuatik, Migel Diaz Anaitasunatik, Migel Bedaio S.D. Eibartik, Aiert Zinkunegi Debako Hamaikak-Bat talde-tik eta Mutrikutik Karlos Madina. Beste lau 1. errejionaletik igo dira: Ion Goikoe-txea, Zigor Cornejo, Gorka Leonardo eta Ibon Villanueva eta gainontzeko guztiek iaz

C.D. Elgoibarren jokatu zuten. Hogeita bateko taldea hogeita bira handitzeko aukera dago. Momentuz ez ditu Club Deportivoak fitxa gehiago egingo, aurrerago egin ditzakeen arren. Igandean, lehen partidua jokatu dute Mintxetan Balmasedaren aurka arratsaldeko 5etatik aurrera. Lehen zatiaren ostean, atsedenaldian, Club Deportivoak 250.000 pta.ren zozketa egingo du. Bestalde, klubak Real Sociedad taldeko bi bazkide txartel erosi ditu. Haundiak Mintxetan jokatzen duen guztietan Realak Anoetan jokatu-ko duen partidua ikusteko bi sarrera zozketatuko ditu bazkide guztien artean. Hortaz, partidua guztietan bazkide txartela soinean izatea eskatzen zaio C.D.ko bazkide orori.

E • G • U • T • E • G • I • A
(95/09/03) Alavés - Elgoibar (96/01/14)
(95/09/10) Elgoibar - Balmaseda (96/01/21)
(95/09/17) Touring - Elgoibar (96/01/28)
(95/09/24) Elgoibar - Lagun Onak (96/02/04)
(95/10/01) Hernani - Elgoibar (96/02/11)
(95/02/08) Elgoibar - Aloñamendi (96/02/18)
(95/10/12) Basconia - Elgoibar (96/02/25)
(95/10/15) Elgoibar - Zamudio (96/03/03)
(95/10/22) Urola - Elgoibar (96/03/10)
(95/10/29) Elgoibar - Zorroza (96/03/17)
(95/11/01) Elgoibar - Juventus (96/02/24)
(95/11/01) UPV - Elgoibar (96/03/31)
(95/11/12) Elgoibar - Zalla (96/04/07)
(95/11/19) Mondragon - Elgoibar (96/04/14)
(95/11/26) Elgoibar - Getxo (96/04/21)
(95/12/03) Amorebieta - Elgoibar (96/04/28)
(95/12/10) Elgoibar - Ondarru (96/05/05)
(95/12/17) Santurtzi - Elgoibar (96/05/12)
(96/01/07) Elgoibar - Gernika (96/05/19)



**JOSE MANUEL
ESNAOLA**
Presidentea



**KIKE
ORMAETXEA**
Entrenatzailea



JUAN MARTIN
Bigarren
entrenatzailea



ROKE ETXABE
Masajista



**KUKI
GONZALEZ**
Material arduraduna

TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38

Maria Urizar

ileapaindegi
mistoa

Errosario 9-1ezk.
☎ 74 44 89 ELGOIBAR

KAFE TEGIA

74 44 65

HAUNDIKO JOKALARIAK

95-96

DENBORALDIA

DATU BATZUK

- Elkartearen aurrekontua: 20 milioi
- Bazkide kopurua: 600
- Zelaia: Mintxeta (belar artifiziala)
- Zelaiaren neurriak: 100x65



Iban Larrañaga
21 urte, atezaina
(Ermua)



Ion Goikoetxea
20 urte, atezaina
(1. errejionala)



Joseba Zubizarreta
27 urte, defentsa
(C. D. Elgoibar)



Gorka Leonardo
20 urte, defentsa
(1. errejionala)



Igor Goenaga
24 urte, defentsa
(C.D. Elgoibar)



Gotzon Egaña
25 urte, defentsa
(C.D. Elgoibar)



Iker Beitia
24 urte, defentsa
(C.D. Elgoibar)



Jon Argoitia
20 urte, defentsa
(C.D. Elgoibar)



Xabier Alonso
27 urte, defentsa
(C.D. Elgoibar)



Zigor Cornejo
21 urte, defentsa
(1. errejionala)



Aitor Treviño
22 urte, erdilaria
(C.D. Elgoibar)



Gaizka Lazaroaster
21 urte, erdilaria
(C.D. Elgoibar)




Migel Diaz
26 urte, erdilaria
(Anaitasuna)



Migel Bedaio
25 urte, erdilaria
(S.D. Eibar)



Aiert Zinkunegi
18 urte, erdilaria
(Hamaikak-Bat)



Eneko Barrenetxea
24 urte, erdilaria
(C.D. Elgoibar)



Joseba Agirregomezkorta
28 urte, erdilaria
(C.D. Elgoibar)



Fermin Yerobi
25 urte, aurrelaria
(C.D. Elgoibar)



Ibon Villanueva
19 urte, aurrelaria
(1. errejionala)



Karlos Madina
24 urte, aurrelaria
(Mutriku)



Joseba Igartua
23 urte, aurrelaria
(C.D. Elgoibar)

magu's
ILEAPAINDEGIA
EDERGINTZA
San Roke 6 behea tel. 74 34 91

MALAPE

ARAZOAK ZURE AHOTSAREKIN?
Hitzegiteko: landu zure ahotsa!
Polipoek, noduloek, ahotsaren erabilera okerrak, etab...
ERAGINDAKO RONKERAK
ANGELA ZABALETA AIZPITARTE
DEITU ☎ 74 15 56

MONTAJES ETUN, S.L.:

Kalitatezko muntaietan espezializatuak

1973. urtean eman zituen lehen urratsak enpresa honek. Kondiarentzat lan egiten dute, handik etortzen zaie lana. Hango makinan muntaiaz arduratzen dira. Fundizioko piezak behin mekanizatuak daudenean pintatu, muntatu eta ajustatu egiten dituzte.

Hogeita piku urte daramatza lantegi honek enpresa auxiliar modura funtzionatzen. Autonomia kalean kokatua dago eta bi pisuk osatzen dute. Lan prozesua lehen pisuan hasten da, 700 metro karratuko solairua. Pintura edo margoketa atala dago bertan. Kondia lantegitik etortzen diren mekanizatutako piezak pintatzeko lekua da. Pintura kabinetan margoketa egiten da eta piezak prest daudenean, behin lijatu eta koskak kentzen direnean goiko plantara eramaten dira hurrengo pausoarekin jarraitzeko. Bigarren pisuan, 1.400 metro karratuko lan eremuan, zortzi bat lagunek maneiatzen dituzten zentruak eta gruak daude. Lan prozesu honetan piezak muntatzen dira, eta garrantzitsuena ajustea da. Gruak oso inportanteak dira piezak mugitzeko

Horregatik langile bakoitzak behar dituen gruak, txikiak zein handiak, izaten ditu aldamenean. Azken inbertsio fuertea gruak erosteko izan zen, 22 grua eskuratu zituzten eta lantegia bera ere berriztatu.

Garai batean, Etun-ek fakturatzen zuena eta gaur egun fakturatzen duenaren artean alde handia dago. Langile kopurua ere bestelakoa zen, Kondiaz aparte, EEBBetako enpresa bat baitzen bezero. Makinak espreski EEBBetako enpresaren-



■ ■ **Beti egin izan dute lan Etun-en enpresa auxiliar modura.**

tzat fabrikatzen zituzten. Lan bolumen handia zuten orduan, gaurkoaren aldean, izugarria. 1987. urte inguruan EEBBetako enpresa hark eskaria eten egin zuen eta eragina Etun-en sentitu zuten.

Langile gutxiago

Duela urte batzuk, 1987. urte inguruan, langile kopurua murriztu beharrean aurkitu ziren, EEBBetako enpresa indartsu harentzat makinak egiteari laga ziotenean, hain zuzen ere. Kaleratutako guztiek jaso zuten indennizazioa eta langile berriak kontratatzekotan, lehenago lan egindakoek lehentasuna izango zuten konprometuzua hartu zuten eta gaur egun tinko eusten diote hitzari. Azken aldian lehenago bertan aritutako bi langile berri sartu dira.

ENPRESAREN FITXA


- ✘ **IZENA:** MONTAJES ETUN, S.L.
- ✘ **SORRERA URTEA:** 1973
- ✘ **SORTZAILEAK:** Kondia, Francisco Mugerza eta Pedro Etxaniz.
- ✘ **GERENTEA:** Francisco Mugerza.
- ✘ **IHARDUERA NAGUSIA:** Pintura, muntaia eta ajustea.
- ✘ **LANGILE KOPURUA:** 12
- ✘ **URTEKO FAKTURAZIOA:** 80 milioi.
- ✘ **HELBIDEA:** Autonomia kalea z/g
- ✘ **TEL/FAX:** 74 08 69 / 74 32 37



EGONDO, s.a.l.

METALEZKO ERAIKUNTZAK
KALDERERIA LANAK OROKORREAN

Olasope kalea 3. blokea ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08



San Francisco 12-14, Tel. 74 05 49



moda

San Bartolome 18
☎ 74 08 49

KOLDO LIZARRALDE:

“Hilobian jartzeko hilarria egina daukat”

Pasai San Pedron jaio, Intxaurren-don hazi, Errenderira ezkondu eta duela 20 urte Elgoibarrera etorri zen. Intxaurrendoko Luistarren eta Mariaren lagundiko neska-mutilekin, Beti Aurrera izeneko klubean egin zuen lehendabiziko lana: "El personalismo de..." izeneko zen, ez du izenburu osoa gogoratzen. Ogibidez kamioi-mekaniko den gizon honen azken lana euskaraz eta gazteleraz idatzitako "Elgoibar, lanak eta mendeak" da, "historiaurretik hasita, pelikula baten moduan, jendea liburuaren aurrean jarri, eta mendeak nola igaro-tzen diren ikustea nahi nuen.



- “El personalismo”tik gaur arte... - Lan asko daude tartean. Hiru liburu kolaborazioan egindako beste batzuek, Etniker eta Eusko Ikaskuntzarako artikulua ere bai: elikadurari, haur jolasei, jaiotzari, ezkontzari eta heriotzari buruzkoak...

- Afizio handia duzu ikerkuntzan. - Bai, ikerkuntza ezezik, maketak egitea ere oso gogoko dut. Egurra lantzea gustatzen zait, aeromodelismoko hegazkinak eginak ditut, Zaldueendoko museoan dagoen metro bateko errota bat... Nire hilobian jartzeko hilarria ere neuk egin dut. Disko formakoa da, grabatuak ditu, baina etxeok ez didate bukatzen uzten.

- Heriotzaren gaia gogoko al duzu? - Gauza guztietan pentsatzea

gustatzen zait. Bizitza hau pasa eta gero, hor dagoen hortaz asko pentsatu izan dut. Guzti hau oso lotua dago heriotzaren errietoari buruz egin ditudan lanekin.

- Elgoibarko “Aita Barandiaran” zarela esango bagenu?

- Gehiegi esatea litzateke, hura bakarra zen. Pertsona langilea zen, argia, edozeinekin ondo moldatzen zena. Ez dira bera bezalako bi egon-

ARGITARATUTAKO LIBURUAK

(1989) “El convento de San Francisco de Elgoibar”

(1990) “Apuntes etnográficos”

(1994) “Aintzinakoak”.

(K. Urdangarin, J.M. Izaga eta K. Lizarralde)

(1995) “Elgoibar, lanak eta mendeak” (elebiduna)

go.

- Zein faktorek markatzen dute gure historia? - Burdinolen garaiak batez ere. Olasoko jauntxoak zen orduan jaun eta jabe, eta haren menpetik ihes egiteko Elgoibar sortu zuten. Erregeari baimena eskatu eta harresien barruan sortu zuten herria.

- Ameriketara joan zen abenturerorik ere egon omen zen.

- Bai, elgoibartar mordoska bat aberratu zen Ameriketara eta gerratan eta konkistetan lagundu zuten. Ez ditut izen asko gogoratzen baina tartean Karkizanotar bat zegoen.


- Ba al dakizu zenbat liburu dituzun etxean? - Ez dakit, 400 edo gehiago.

- Irakurri duzun azken liburua? - Barandiaranen obra osoa.

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak	Enbutidoak
Baserriko ogia	Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ecnarro, 1 ☎ 74 33 92



GARAY

HARATEGIA

San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

ERKUDEN IDIAKEZ eta OLATZ ONEDERRA

Udalekuen apostua begiraleen eskutik

21 urte dituzte bi elgoibartar hauek. Txiki-txikitatik joan izan dira udalekuetara. Umetan zeinen ondo pasatzen zuten ikusita, handitzean eurak ere begirale izan nahi zutela esaten zuten. Eta hala egin. Gaur egun zuzendari titulua ateratzen ari dira.



- Zein da begirale baten lana? - Umeek ondo pasaraztea, batez ere. Denbora asko zaude beraiekin eta tarte horretan ekintza ezberdinak egiten dira, jolasak, antzerkiak...

- Umeak gustuko al dituzue? - Bai, denetik dago baina gustura ibiltzen gara beraiekin. Txikiak esker onekoak dira eta nagusitxoagoak ere, beren erara, asko ematen dute. Harremana ezberdi-

na da baina bietan aberasgarria.

- Udaleku irekiak ala itxiak nahiago? - Oso ezberdinak dira. Itxiak nahiago ditugu, harremana sakonagoa da bai begiraleen artean bai eta umeekin ere. Gau eta egun zaude beraiekin eta hori asko igartzen da. Irekietan, berriz, egunean hainbeste ordu egin eta kitto, bakoitza bere etxera doa. Hoztagoa da.

- Begirale izatetik zuzendaritzara. - Bai,

sekula burutik pasa gabeko zerbait zen baina Elgoibarko Izarrak eskaini zigun aukera eta egitea erabaki genuen. Oso ezberdina da begiralea edo zuzendaria izatea. Begiralea hurrekin dago harremanetan etengabe, zuzendaria papeleo asuntua darama, berea da udalekua aurrera ateratzearen ardura... Halere, zuzendaria ezberdina da pertsonaren arabera. Batzuk begiraleak izango balira bezala ibiltzen dira.


- Aisialditik enfokatzeko al duzue etorkizuna?

- Orain gero eta gehiago ari da bultzatzen aisialdi-denbora, gauzak antolatzen dira, gero eta udaleku ireki gehiago daude... Halere, mementuz gurtzat hau guztia denborapasa da, hobya. Oso gustura ibiltzen gera eta denbora daukagunez...

- Nork pasatzen du hobeto, haurrak ala begiraleak? - Biek, bakoitzak bere erara baina biek. Haurrak ginenean begiraleek zeinen ondo pasatzen zuten pentsatzen genuen. Orain, askotan umeek inbidia puntu bat sortzen digute nola disfrutatzen duten ikusterakoan. Haurrek eta begiraleek biek pasatzen dute ondo.

- Eta ligatu? - Umeek asko tonteatzen dute eta begiraleen artean ere beti sortzen da zerbait.

ELGOIBAR INMOBILIARIA S.A.



ETXEBIZITZAK

San Roke Poligonoan

1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak

8.224.000 pta.tik gora

INFORMAZIOA: Leku Ederreko lokaletan. ☎ 74 40 34

Salerosketak

KOTXE INGLES BAT saltzen da 23.000 pta (Kuna, kotxe estalkia eta bainera oparitzen dira)
☎ **75 61 71**

ESKOPETA REPETIDORA BAT erosiko nuke. P. Beretta edo antzerakoa.
☎ **74 15 35 Alberto**

MTB Camondale 94 T. 48 XTR mtor bat saltzen dut.
☎ **75 62 43 (1,30-15,00)**

KANPING kanadiar bat SALTZEN DUT. 5-6 lagunentzat. Egoera onean. 12.000 pta.
☎ **74 11 30 Rosa**

OMEGA markako ERREPIDEKO BIZIKLETA saltzen dut. Egoera onean.
☎ **74 01 71 Patxi**

Bigarren eskuko VESPA 200 edo antzerako motorra erosiko nuke.
☎ **74 40 62 Agustín**

Etxebizitzak

ETXEBIZITZA BAT SALTZEN DUT EULOGIO ESTARTAN. Egoera oso onean dago.
☎ **74 10 46 Maite**
(Gauzez 10etatik 11etara)

Ingeleseko irakasle bat naiz eta alokairuan dudan ETXEA KONPARTITUKO NUKE
☎ **74 24 99 Antonia**

Ingeleseko irakasle batek LOGELA BAT eta pentzio osoa edo sukaldean ibiltzeko aukera nahi ditu. (9 hilabete)
☎ **42 84 06 / 74 02 36 Richard**

Alcoceber-en APARTAMENTSU BAT daukat alokatzeko (irailean)
☎ **74 22 08**

Lana

Lau urteko UME BAT ZAINTEZKO PERTSONA BAT behar da. Arratsaldean 16,00-20,30 eta larunbatean 20,30-13,00
☎ **74 12 26 Lorea**

Ikasbat-en zerbitzua amaitu ondoren KAFETEGI ZERBITZURAKO PROPOSAMENAK JASOTZEN DIRA.
☎ **74 41 32 IMH**

Mendaroko baserri batean GAIXO BATEN LANAK EGITEN LAGUNTZEKO andra bat behar da egunean ordubeterako.
☎ **15 04 41**

Tabernako MOSTRADOREAN LAN EGITEKO neska euskaldun bat behar da.
☎ **74 37 22**

Partikularrak

FRANTSESEKO KLASEAK ematen ditut. Maila guztiak Enpresetarako itzulpenak eta interpretazioak ere bai.
☎ **74 04 59 Jaqueline**
(13,00-14,30 eta gauzez 20,00etatik aurrera)

Bestelakoak

8 urteko mutiko bat naiz eta abuztu haseran Xakobeoko LLABERO BAT GALDU nuen. Balio handia du niretzat norbaitek aurkitu badu mesedez deitu.
☎ **74 30 33 Asier**

UZTAILEAN eta ABUZTUAN

Hildakoak

Jose Javier Nogero Lariz, 33 urte (uztailak 2) • Vitorino García Abad, 78 urte (uztailak 2) • Cristina Ruiz Poveda, 65 urte (uztailak 5) • Gabriela Holgado Mozo, 89 urte (uztailak 7) • Ramon Galdos Gurrutxaga, 91 urte (uztailak 8) • Basilio Zubiaurre Garitaonandia, 87 urte (uztailak 8) • Juan Antonio Gorostiaga Uruga, 55 urte (uztailak 15) • Tomás García Burgos, 80 urte (uztailak 17) • Benigna Zabaleta Elorza, 90 urte (uztailak 23) • Jose Francisco Egidazu Gorostidi, 73 urte (uztailak 25) • Jose Luis Eizagirre Arriaga, 64 urte (uztailak 27) • Estefania Jaio Zabala, 78 urte (uztailak 27)

Jaiotakoak

Imanol Ansola Arizmendiarieta (uztailak 4) • Nerea Leiaristi Nogales (uztailak 5) • Itoitz Vitores Uranga (uztailak 9) • Ibon Belaustegi Urrutia (uztailak 29) • Jon Urkia Arrizabalaga (abuztuak 5) • Iker Alonso Fernandez (abuztuak 6) • Nerea Badiola Zabala (abuztuak 8) • Zuriñe Conde Lizundia (abuztuak 8) • Andrea Ibarluzea Osoro (abuztuak 9) • Sara Beristain Cerrejón (abuztuak 9) • Iñaki Amesti Belaustegi (abuztuak 23) • Nerea Fernandez López (abuztuak 26) • Alberto Loiola Sandoval (abuztuak 27) • Gorane Aiesta Maidagan (abuztuak 28) • Nora Armendia Zabala (abuztuak 31)

Ezkondutakoak

Aitor Mujika Larreina eta Lourdes Arregi Kerejeta (uztailak 1) • Jose Luis Perez Fernandez eta Lourdes Huidobro Torinos (uztailak 1) • Toñi Otero eta Ana Gonzalez (uztailak 1) • Juan Carlos Ramos Blaquez eta Josefa Moreno Becerra (uztailak 8) • Timothy Alexander Moore Millar eta Paloma Rivas Martín (uztailak 15) • Montse Gonzalez eta Manu Hernandez (uztailak 15) • Maria Teresa Artola eta Txomin Alberdi Ibarloza (uztailak 15) • Jon Fernandez eta Clara López (uztailak 15) • Juan Maria Montanez Soto eta Natalia Coronado Ordoño (uztailak 15) • Roberto Aranzabal Olaizola eta Alicia Rey Uranga (uztailak 15) • Iñaki Goñi Gabilondo eta Nerea Lariz Azkona (uztailak 22) • José Calles Lucas eta Rosi Moreno (uztailak 22) • Alberto Mujika eta Maria Pilar Aranbarri (uztailak 22) • Juan Carlos Azkarreta eta Maria Ulazia (uztailak 22) • José Antonio Sanchez eta Maria Jesus Hidalgo (uztailak 22) • Maria Arrillaga Santolaya eta Luis Carlos Alvarez de Arcaya (uztailak 22) • Jose Manuel Casares Rodriguez eta Itziar Ordoñez López (uztailak 23) • Reyes Linares eta Juan Pedro (uztailak 23) • Cristina Aristi eta Asterio Pérez (uztailak 29) • Iñigo Yudego eta Marina Gabiola (uztailak 29) • Iñaki Noguero eta Loinaz Artolain (uztailak 29) • Iñaki Mancisidor eta Ane Laskurain (uztailak 30) • Jose Antonio Gonzalez Juez eta Sara Pérez Iglesias (uztailak 30) • Jose Gabriel Plaza Lorenzo eta Rosa Maria Dacosta Crespo (abuztuak 2)

8 OSTIRALA

22,30 AIRE LIBREKO ZINEA

“Rápida y mortal”

✓ Plaza Handian

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

9 LARUNBATA

22,30 AIRE LIBREKO ZINEA

“Un mundo perfecto”

✓ Plaza Handian

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

14 OSTEGUNA

20,00 DIAPOSITIBA EMANALDIA


Gaia: Alaska

Egilea: J. Ramon Agirre “Marron”

Antolatzailea: AEK euskaltegia

✓ Kultur Etxean

AIRE LIBREKO ZINEA



Rápida y mortal

Zuzendaria: S. Raimi

Antzezleak: Sharon Stone, Gene Hackman.

Spaghetti-western delakoaren estiloko pelikula. Emakume pistolazale bat (Stone) herri batera iritsiko da mendeku bila. Bertan bizi den jauntxo bat (Hackman) hil nahiko du aspaldian egin zion zerbaitengatik. Jauntxoak inguruetakoa pistolazale onenak biltzen ditu lehiaketa antzeko batean. Sari bat dirutan eta pistolazaleen bizia dago jokuan. Bizirik geratzen denak irabaziko du saria.



Un mundo perfecto

Zuzendaria: Clint Eastwood

Antzezleak: Clint Eastwood, Kevin Costner, L. Dern.

B. Haynesek gartzelatik ihes egiten du. Ihesaldian zortzi urteko mutiko bat bahitzen du eta biek batera burutuko dute ihesaldia. Texasko polizia bat eta emakume kriminologo bat bahitzailea eta mutikoa atzeman nahian ibiliko dira. Errepide-film erromantikoa da, bahitzaile eta bahituaren artean sortutako adiskidetasunaren eta maitasunaren berri emanez.



15 OSTIRALA

18,00 ODOL ATERALDIA

✓ P.M. Urruzuno 8an

19,00 PINTURA ERAKUSKETA

Egilea: Maite Gurrutxaga

✓ Kultur Etxean

Urriaren 1era arte

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
9, larunbata:	Ormazabal	Ormazabal
10, igandea:	Ormazabal	Ormazabal
11, astelehena:	Yudego	Yudego
12, astearte:	Yudego	Yudego
13, asteazkena:	Yudego	Yudego
14, osteguna:	Yudego	Yudego
15, ostirala:	Yudego	Yudego

OKINDEGIA:

10, igandea: BOUTIQUE DEL PAN



SECUNDINA ANSOLA GALDOS andrea, San Migel bailarako Belarreta baserrikoa, abuztuaren 16an Buenos Aireseko (Argentina) euskal etxean hil zen 93 urte zituela.

Bere arimaren alde MEZA eskainiko da San Migeleko elizan datorren igandean, hilak 10, goizeko 11,30etan. Sendiak deia luzatzen die lagun eta ezagun guztiei meza horretan parte har dezaten.





KENSINGTON

Pedro Muguruza 8. ELGOIBAR TEL- FAX 74 02 36



GIPUZKOAKO
HIZKUNTZ IRAKASLE
ELKARTEKO BAZKIDE

CAMBRIDGE EXAMINATIONS
CENTRE ES-438

95-96 IKASTURTEA Irailaren 14tik eta urriaren 2tik aurrera talde berriak

MAILAK:

1. mailatik (oinarrizkoa) 11. mailara (aurreratua).
Sarrerako azterketaren arabera.

TALDEAK:

- Mintzamen praktikak
- Kanpo komertzioa
- Itzulpena (bi hizkuntzetara)
- Azterketa ofizialak
- Oinarrizko mailak haurrentzat.

ORDUTEGIA:

Goizez-arratsaldez-gauetz
(Egunero edo astean egun batzuk). Intentsiboak

ADINA:

Adin guztiak. **3 urtetik gorakoentzako klaseak**

*klaseak
irailaren 14an
hasiko dira*



Aterpe

Aterpe tabernakook
ESKERRAK eman nahi
dizkizuegu jaietan gure
artean ibili zareten guztioi.

Honekin batera, taberna
berriz ere ZABALIK
dagoela jakinarazi nahi
dizuegu.

San Roke auzoa, 5 • Elgoibar (GIPUZKOA) • Tel. 74 25 95

egin zaitez bazkide

Aupa Elgoibar!



C.D. ELGOIBAR



6 talderekin 150 neska-mutil futbolean

Zuen guztion beharrean gaude

KUPONAZOA!

SARIAK:

- Egunero 2.500 pta
- Ostiraletan 5.000 pta
- Hilabeteko azken zozketa egunean 100.000 pta



Iaz Alejandro Iriondok
1.000.000 pta.ko saria jaso zuen.

IGANDE HONETAN
iazko kuponazoaren

250.000 ptako
ZOZKETA BEREZIA

**C.D. Elgoibarko bazkideentzat
ERREALA ikusteko aukera**

Haundiak etxean jolasten duen
igandetan ERREALA tribunatik
ikusteko **bi** pase zozketatuko ditugu
C. D. Elgoibarko bazkideen artean.



Bete ondoko txartela eta ekarri Mintxetako kirol instalakuntzan dugun lokalera. ☎ 74 19 49

Izena abizenak

Zuzenbidea.....Tel

KUOTA: Bazkide babeslea 10.000 pta (socio protector) TRIBUNA 2.000 pta

Bazkide normala 7.000 pta

Jubilatua, gazteak, emakumeak 4.000 pta

Bankua..... Kontu zenbakia (20 zenbaki).....